Lore Bat Loitan

IRU EKIN - ALDITAN

NESKATXAK BAKAŔIK EGITEKO

ANTZERKIA

1932

IÑAKI DEUNA'REN IRARKOLA.—GARIBAI, 28

DONOSTIA

IRATXE
LIBRERIA ANTICUARIA
Paulino Caballero, 49
PAMPLONA

ANTONIO AMUNDARAIN

M.- 28378
A.- 16327
ATV 11.045

Lore Bat Loitan

IRU EKIN - ALDITAN

NESKATXAK BAKARIK EGITEKO

ANTZERKIA

1932

IÑAKI DEUNA'REN IRARKOLA.—GARIBAI, 28

DONOSTIA

Donostiko udal gizonak 1930' an jaritako batzaldian, saritua izan zan antzerki au

EGINTZALEAK

Antzeznotiñak	Antzertilariak
AMA FRANTZISKA ATEZAIA	*Oblata erligiosak*
SIMONA	*eta onen alaba*
CARMEN. ANA MARI	
INÉS	*Gero Sor Inés*
AXENTXI.	
PILAR TERESA NATI	*Irakasleak*

Eta Dotriñako umeak nai aña.

"LORE BAT LOITAN"

ANTZERKI-GELA.—*Dotriñako ikas-gela, nai dan eran. Neskatil talde bat eta iru irakasle Pilar, Teresa ta Nati iru saletan dotrina erakusten. Zatitxo batian jardunta...*

LENENGO EKIÑ-ALDIA

Lendabiziko sayoa

PILAR. *(Karameloak ematen. Neskatiīak zalaparta aundia atera bear dute; ixkamiīan esanaz: neri ere bai: neri, neri: neri ez dit eman: bota, bota: onera ere bai.....)* Jaŕi orain biribiīan *(koŕoan)*. Kondaira polit bat esango dizutet, eta atarira.

NESKATIL. *(Eskuak igortziaz)*. ¡Au poza!

BATEK. Polita izan dediīa e?

PILAR. Guztizkoa; oso edeŕa ta egokia zuentzat.

BESTE BAT. Tira ba: aguro, aguro.

PILAR. Ixilik bada guztiok..... Antziñako...

BAT. Utzi nazazu tokia, nik ere ikusi bear det.

PILAR. Ixo; bestela banoa..... Antziñako egun batian, Jesús, gure Jauna, oñez tapa-tapa. Sidon aldean zebiīela, fariseo batek bazkaitera deitu zuen.

Jesusek etzion ukatu; bazekien gogo txaŕez egiten ziotela; baño joan zan. Exeri ziran y ekin zioten jaten. Eta oŕa, laixter jan tokian agertu zan emakume gazte bat, oso apaña.

Agur egiñaz, begiratu zoŕotz bat bota

zuen, eta Jesús ezagutu zuenean, zuzen bere oñetara joan ta, itz bat esan gabe, auzpeztu eta negaŕez bere oñai musuka ekin zion. Negar zerion benetan, malkoz Jesusen oñak busti eta bere buruko illeaz igortzi eta legortzen zizkiola.

¿Badakizute gazte ori zein zan?

(Neskatoak elkaŕi begira, ez dute erantzungo.) (Pilaŕek jaŕaituko du).

Ara bada. Jerusalendik laixter dagon eŕi polit batian, iru señide, guraso gabe, bizi ziran. Oso jainkozko sendia zan au gurasoak zituzten arte. Ain txintxo, apal, zuzen eta garbi ibilli oi ziran guztiak..... Baño gurasoak il ziran, eta gurasoen itzala bukatu zan, eta aizpa gaztenari laixter igaŕi zitzayon.

Mundua polita zalata, mundu zaletu zan, eta egunetik egunera aŕotzen eta aŕotzen zijoan; aberatsa zan beŕiz, eta nai zuen erara, modara, nabarmentxo jantzi eta luŕeko atsegiñetara makurtu zan.

Egunetik egunera aldatzen zijoan gure gazte au; etxe inguruko biziera laburtxo egin zitzayon, zabaltzeko gogoa geroz ta geyago, ezin egon, bere señiden lokaŕiak min ematen zion, eta oŕa... egun zori gaiztoko batian etxetik iges egin zuen.

Ardi galduaren antzera, belar goxoaren zale, eŕi batetik bestera, eta andik bestera, eta bestetik bestera bazebillen, zituen diru eta izen ona bidean galduaz.

Ezin ase zan, ¡ase beaŕa!, biyotza bete

nai, eta ase gaya bear eta ezin arkitu. Ontan oso okertu zan, izen txaŕa zabaldu zitzayon, galdu zan, eta uŕutiko uri zabal batian lotsagabeko bizitza lizuna egin zuen. Oŕa, etxian neskatil txintxoa ta garbia izan zana, orain bere burua guztiz loitu eta deabru bat egiñik.

Baño..... gure biotza ez baita luŕerako, zerurako baizik; gaiztakeriak ase ez bazuan ere, nazkatu bai benetan; gero animako aŕa ozkaka zerakion. ¡Miĺa bider damutu zan! Eŕukaŕia zan gaxoa.

Jesus, artzai ona, ardi galduaren billa uri artara uŕeratu zan; onek laister jakin zuen, arkitu zuen len esan degun bezela, eta bere oñetan garbitu zan...

¿Orain gazte ura zein zan asmatuko ote dezute?

GUZTIAK. Magdalena, Maria Magdalena.

PILAR. Berbera, eta santa aundia, ordu ezkero Jesusen maitalerik aundiena bera izan zalako. Munduko atsegintasunak baño Jesusen maitetasunak geyago atsegindu zuen.

Eta zuek, nere neskatoak, Magdalenak bezela, bide gaiztoak eraman nai dituzute?

GUZTIAK. Ez, ez degu nai.

PILAR. Ze bide nai dituzute bada?

GUZTIAK. Bide zuzenak.

PILAR. Eta bide zuzena ¿zein da?

GUZTIAK. Jesus da bidea.

PILAR. Eta Jesus non ikasten da?

GUZTIAK. Dotriñan.

PILAR. Beaz zuek Jesusi jaŕaitu nai diozute ¿ez da?

GUZTIAK. Bai, andrea.

PILAR. Munduko dantza, ta zine, ta musikak ere politak izango diraba?

TXIKI BATEK. Bai, andrea.

AUNDI BATEK. Ez, andrea. Orain gutxi, gero gutxiago, gerogo batez... ta azkenean?

TXIKIAK. Azkenean, azken gabeko inpernua.

PILAR. Ederki nere txiki. Munduak gauza aundiak agintzen ditu ta txikiak eman; azko agindu ta gutxi eman; edeŕak agindu ta ustelak eman. Baŕua ustela duan sagar musu-goŕia bezela da mundua, auŕena anima kutsutzen du ta gero askotan gorputza. Zuek bada Jesusekin ibiĩi; bakar bakaŕik Jesusekin.

NESKATIL. Bai andrea.

PILAR. Berarekin zoazte bada

BIGAŔEN SAYOA

Pilar, Teresa ta Nati.

PILAR. Ez gera ain gaizki; gure neskatiĩak kementsuak eta adikoŕak dirudite...

NATI. Ari danak beti zerbait atera oi du.

TERESA. Zerbait bai..... Kopetetik izerdia bada ere.

NATI. Ongi ixuritako izardiak ogia du berekin. Au da Jainkoaren gogoa.

PILAR. Baño, ez nago ase betea guztiakin; gauza bat ikusten nago ortxen, zuek etziñaten benturaz oartuko.

TERESA. Ni ez.

NATI. ¿Zer da ba?

PILAR. Karmen Bidegain ez det arkitzen lengoa; neska oŕek badu zerbait; negar begiak dauzka gaur.

TERESA. Irudipenak.

PILAR. ¿Bai ote?

TERESA. ¿Umezurtza ez da ori?

PILAR. Batere ez luke galduko. Duen amak ez dio aspaldian mesede aundirik egin. Ama ona, gauzik onena izango da, baño, ama txaŕa.....

TERESA. Gauzik txaŕena.

PILAR. Oso. Karmenek etsayik aundiena bere ama du.

NATI. Ta, zuk nola dakizu ori?

TERESA. ¿Benturaz ezer ikusi al diozu?

PILAR. Karmenen ama lengoa ez dala badakit; eta au naigabetua dagola bere begiak diote.

3'GAŔEN SAYOA

Lengoak, Ines ta Karmen

INES. *(Kanpotik)* ¿Sartuko al gera?

PILAR. Auŕera.

INES. *(Au auŕena, ondoren Karmen negaŕez)* Karmenek zerbait esan nai lieke.

PILAR. Eta zu ¿itxuauŕeko?

INES. Bakaŕik trebe etzan ta.

NATI. Orain trebetuko da; zu lagunakin jolastu asko. *(Ines joango da).*

PILAR. Tira Karmen amasei urte ezkero negaŕik ez da egin bear.

KARMEN. *(Zotiñka.)* ¡Negaŕa! Miñen-miñena orain datorkit, eta ez dakit gero miñagoa egin beaŕko ez ote dedan.

PILAR. ¿Zeŕ dala ta, Karmen?

NATI. Jaŕi ementxe, Karmen; zu beti leyal ta egitia izan zera emen, eta ziñez ageŕtu zure naigabe ori.

KARMEN. *(Exerita.)* Bada...gauŕ amak ezan dit... bada... aundia egin naizela...ta...oŕa... ez nindekela dotŕiñara geiago onera etoŕi. Aspalditxotik asia da esanaz, dotriñatik moja usaya naramakiala, eta usai oŕek nazka ematen ziola. Nayago ninuela moja baño, aŕantxero batekin ezkonduta ikusi.

NATI. ¿Eta oso erabaki al du geyago zu dotriñara onera ez etortzea?

KARMEN. Ez onera ta ez iñora. Atzo nere gelan aŕapatu ziran, emendik Misiotara joan zan Angelitaren idazti *(karta)*. *(Negaŕek)*. ¡Ondo zorigaiztokoa naiz bai¡

TERESA. Tira Karmen, ez da geyegi naigabetu bear. Jainkoa guztion gañetik dago; bere begiramenari ez dio ezerk iges egingo, etsai guztien biguŕikeriak une batean askatu ditzake.

KARMEN. Amen bada..... Baño.....ai! Emendik oso uŕuti bizi beaŕa naiz..... Benturaz geyago ez gera ikusiko ta.....!

NATI. ¿Zer bada?

PILAR. ¿Nora zaramazki bada zure *ama oŕek?*

KARMEN. Gaur goizean muŕika ta iseka dariola esan dit; moja usai oyek nik kenduko dizkiñat;

arkitu diñat bai toki egokia; an ikasiko den txorakeri oyek zer diran.

TERESA. ¿Non zartu bear zaitu bada umea?

KARMEN. *(Negaŕez.)* Ez dakit nik.

PILAR. Ala izan ta ere, ez dezagun gauza ori oker ta txaŕera jo. Berotasunean atera zayon batetako asmo txaŕen bat da ori; utzi aziko diogu.

KARMEN. Alpeŕik izango dala nago ba egiten dezuten guztia.

NATI. Sayatuko gera beintzat. Oneraxe deituko diogu.

PILAR. Ongi deizkiot Nati; ia onerako bidea egiten diozun.

KARMEN. Ni ere Natikin joan nindeke.

TERESA. Nai dezuna.

PILAR. Ez, zu ez, benturaz emen gero bearko zaitugu ta.

NATI. Gero arte bada.

PILAR. Aingeruak zurekin.

KARMEN. Nik zer egingo det bada?

PILAR. Teresa ta zu atarian ibiĩi, oñak berotuko dituzute.

TERESA. Guazen bada biok. *(Joango dira).*

4' GAŔEN SAYOA

Pilar bakaŕik

PILAR. Gutxiena uste genuen aldetik saŕtu zaigu etsaya. Mundu ustel onetan lore gaŕbi batzuek, loitu gabe, goŕde nayean gabiltza, eta ez digute uzten; guztiak etsai ditugu, eta

askotan geyena gure alde izan beaŕ giñuzkenak ¡Au itxumen negargaŕia!.....

Ez gaituzte aditzen; ez digute sinisten gaitza begien aufean ikusi arte; orduan onik gabeko negaŕak. ¡Au gurasoen ez jakite obenduna! .... Jainkoak seme-alabak ematen dizte eta ez dakite zertarako eman dizten. Oyen zoriona nai omen dute, eta geyenean zoritxaŕaren bidetik daramazkite. ¿Nola ekaŕi umeai beren zori-ona, Jainkoaren bideak galduazita? Jainkoak ekaŕi gaitu mundura, Jainkoak jaŕi dizkigu emen bakoitzari geren bideak; eta iñork ez dezake,seta gaiztoz, bide ori okertu.

¿Etorkizunaren beŕi guraso batek zer daki? Ama itxu oŕek alaba emendik aterata, berak nai duen bidean jaŕik du. ¿Baño bai aldaki bide ori non bukatzen dan? Asiera bezela bukaera baleki. Oraindik negar egin bear du gaxoak: ¡onura gabeko negaŕa, negar samiña!

«Nere alaba nerea da, esaten digute, eta ¿ez aldezaket berarekin nai dean gauza egin?» Ori inpernuko dotriña da. Bakar-bakaŕik Jainkoa da gure jabe oso-osoa; aŕek bakaŕik dauka gurekin nai duena egiteko eskubidea.....

Baño ....andre oŕi gauza au berekas jayo zayola ezin sinistu det. ¿Moja zale egin zayola bere alaba ta, oŕela aldatu?..... ¿Zirikalarien bat ez al da or erdian sartua izango? *(Txiliña joko dute.)* Deitu dute.

Emen ditut. Aitaren egin dezadan. *(Egingo du; atea irikita.)* Aurera.

5' GARREN SAYOA.

Pilar, Simona ta Axentxi

SIMONA. Gau on.

AXENTXI. Baten tokian bi gera.

PILAR. Ongi etori biyok. Emen iñori ez diogu atea iristen.

AXENTXI. Baño, ez nieke lan txarik eman nai, onekin bakarik itz egin bear bazenuten, aterako naiz.

PILAR Ez, ez; ez degu emen orelako ezkutu gogorik.

SIMONA. Nere alabarekin ezer bada beintzat, onek jakinta ere ez dio ardurik.

PILAR. Bai ba, zure alabaren gain degu zerbait erabaki bearra; eta emen dauden ezkero, unetxo batian nere lagunai deituko diet: guztion artean obekigo erabaki genezake. *(Joango da)*

6' GAREN SAYOA

Simona ta Axentxi

AXENTXI. Andre oni ez dio on anndirik egin ni zurekin etortzeak; uste det ez naizela emen oso bere gogokoa.

SIMONA. ¿Lagun bila oregatik joan ote da ba?

AXENTXI. Begira gero... oek asko ikasita daude ta... Bakarik utzi bearko ditut.

SIMONA. Ez orixe beintzat. Etzaitut asmo oŕetan ekaŕi.

AXENTXI. Begira gero Simona. la uste gabe gure asmoak oker irteten zaizkigun.

SIMONA. Ez dago bilduŕik. Zuk Axentxi, nere esana egin. Ez gera galduko.

AXENTXI. Aguindu bada, Simona, laguntzaĪe izango nazu Eeti.

SIMONA. Zuk gaur nere kalte *(kontra)* eta ayen alde itz egin; nik nere buruari eutsiko diot gaurkoan beintzat. Zuk ayen iritziai jaŕaitu beti; oŕela kenduko dituzte zuregan egin dituzten susmo txaŕak.

AXENTXI. Ongi bilattzen det. Nola nai ere, bidez edo bide-gabez, zure alaba beti zurea izango da, ta guztien gañetik dago beregan daukazun eskubidea, nai dezuena egiteko.

SIMONA. Egingo det bada Eŕomak berak debekatzen badit ere. Zuk ongi diozun bezela, nere alaba nerea da, eta nik nai dedan bidetik joan bear du. Atzo zuk eman zizkidatzun beŕi onak asko ditut. Oŕelako irakazbidea ez da galtzeko.

AXENTXI. Ori ala da ba. Zure alabak «an» nai duena irabaziko du. Neska oŕen «saleroa» eta oŕek daukan «eskola», munduaren erdia txoratzeko aña badira ta.

SIMONA. Dijoala ba. «suerte» ona ez da nola nai galtzeko. Oŕetarakoxe ainbeste urtean ikasten ibiĪi det. Irabazten asteko ere badu garaya.

AXENTXI. Gañera, bere buruari begiratu nai badio,

gauza ona pranko amen ikasiko zituen, eta ez dago galtzeko.

SIMONA. ¡Emakumea! Erdi moja eginik daukate ta; bilduŕa daukazu. Gizon bati begiratzeko kemenik ez du ta.

AXENTXI. Utzi, utzi; begiratuko die. Emen dira.

7' GAŔEN SAYOA

Lengoak, Pilar, Teresa eta Nati.

PILAR. Emen gera bada. Ia pake- pakean, Simona, gauza on bat egiten degun.

TERESA. Etoŕi zerate beaz.

AXENTXI. *(Lo.rintxaz.)* Bai ba. Oni bakaŕik deitu diozute, baño.....oŕa.....lagunduko dioan esan dit.....eta biok gatoz; baño ala bear bada, atera ere.....

SIMONA. Ez, ez. *(Oso asaŕe.)* Oek ere iru dira ta gu bi izan giñazke; ala ere ez gera geyegi.

PILAR. Esan dizutet, ez degula ¡ezkutuan esateko gauza gorderik. Egia da guk zurekin gauzatxo bat erabaki nai genuke; baño zure lagun onek entzun ta ere ez dio ardurik.

SIMONA. Esan bada aguro, nik aparia jartzeko etxian neskamerik ez daukat-eta.

AXENTXI. Pazientzi pizka bat bada, Simona, pazientzi pizka bat; gauzak apaltxego, apaltxego... ez oŕen durdurikeri aundiakin artu.

SIMONA. *(Asaŕé bizian.)* Zaude ixiĪik nai badezu, zu ere nere kalte bazera orain. ¡A ze laguna ekaŕi dedan nik onera!

AXENTXI. Ni egiaren alde, Simona, ez zu ta ez bes-

ten alde; bakarik egiaren alde. Arazoia ta egia bear ditugu.

PILAR. Ori da; arazoia, egia ta pakea. Emen ez gera asaretu bear.

TERESA. Exeri gaitezen bada ....ta. *(Exeriaz)* Jainkoa izan dezagula lagun eta aingeruak gordetzale.

PILAR. *(Bere artean.)* Beara izango diñagu.

NATI. Exeri bada ortxe, Simona.

SIMONA. Ni ez; etxeko-andreak exertzen dira berak nai duten patxaran; gu ez gaude orela oituak.

AXENTXI. Andrea, zaude mesedez goxoxego, eta ez jari oren zital.

SIMONA. *(Oso gogor.)* Beriketa asko zuk, petral orek..... Esan bear dezutena esan; bestela badakit nondik sartu naizen. Nere alabarekin ezer nai bazenduten, ara neroni aureratu esatera, gaurtik badaramakiala ta kito.

TERESA. ¿Egia da beaz? Ori jakin degu ta ezin sinistu genuen.

PILAR. Asko aritzen gaitu orek, Simona.

SIMONA. ¿Aritu? ¿Aritzeko gauza alda ba? ¿Betiko sartu al nuen bada emen? ¡Ama baño aundiagua egin den eta!

PILAR. ¿Zer galtzen du orekin?

TERESA. ¿Igandero ordu-bete bat zure alabak non obekigo igaro dezake?

SIMONA. Ni gutxigorekin gelditu nintzan, ta ala bizi naiz.

TERESA. ¿Ta zer orékin?

PILAR. *(Bere artean.)* Ezagun den bai.

NATI. Begira Simona, zure alabak emen jaiero ordu bat edo beste igaroakin ez du ezer galtzen; lagun onak dauzka, asko zokotan or baño emen obe du; gañera gutxi bada ere, beti zerbait ikasiko du.

PILAR. Ori guztia len zuk ontzat eman ziguzun, eta orain ¿zergatik ez?

TERESA. Gazte baten afixkoak gaur zenbat diran ondo dakizu ba.

PILAR. Emen ongi gordea dago, ortarako gaude gu, au da gure lana.

NATI. Tira, Simona, ez diguzu naigabe ori guri ta zure alabari eman bear.

AXENTXI. Egia esan bear bada, ni oyen alde, Simona; zure alabak bere egin beafak bete ditzake emendik atera gabe; laguntzaile onak dituzu emakume oek; entzun bear ziñiezuke.

SIMONA. *(Ori guztia entzun bear du lufera edo baztafera begira, oso geldi. Gero batbatean sutan bezela asiko da.)* ¿Baño zer mila deabru dira sorgin zar oek? ¿Gauza oyen beri ez ote dakit nik? ¿Neri zuek lezioak eman?

PILAR. *(Bere artean.)* Premia bai.

SIMONA. *(Jafaituaz.)* Ongi egin diozutela badakit; asmo ofetan ekafi nizuten..... Baño gaurtik asko du, ia geyegi ere badaki-ta. Ortik aufera aufak txoratu ta txepeldu egiten dira. Laixter ortan litzake nerea ere. Amasei urte badauzka ta alare kale ixkiñan gizaseme bat ikusi orduko, igesi dijoa.

AXENTXI. Obe, Simona, obe; askok ori egingo baluteke, ez luteke batere galduko.

TERESA. Mesede aundi bat berentzat, eta gurasoentzat ere ez txikia.

SIMONA. Bestelako «eŕegaloa».

PILAR. ¿Zer bada? ¿Amasei urte badituela-ta, nai ta nai ez zure alaba praka-zale egin nai al dezu?

SIMONA. *(Isekaz.)* Baaaai..... ¿ta zuri zer?

PILAR. ¿Neri zer? Zuk uste aña bai. ¡Ai Simona! ¿Biotzik gabea naizela uste al dezu? Neri ta nere lagunai ere oso samiñ zaigu au biziro.

SIMONA. Jakiña; zuek ori moja-zale izatea nai; nik beŕiz ez; nik moja-zale baño ijito zale izatea ere nayago det.

PILAR. Oŕek on egingo dizu.

SIMONA. Zuri ez beñepein.

TERESA. Zure alabari ere ez.

SIMONA. Neri bai ordea, neri bai; ta au da beaŕena..... *(Asaŕetuta.)* Noan, ez egitekorik emen egin baño len. *(Puŕustadan irteten asiko da. Atean arkituko du Ana-Mari.)*

8'GAREN SAYOA

Lengoak eta Ana-Mari

ANA-MARI. *(Elkar joaz.)* ¡Jesús! Auxe da batetan...

SIMONA. Deabru zaŕa da au.

ANA-MARI. ¿Zer degu, Simona? ¿Asaŕe?

SIMONA. Utzi nazazu nere bidean, ixilik eta pakean.

ANA-MARI. ¡Jo-jau! ¿Bertsuak ere bai?

AXENTXI. Bai; oŕetarakoxe gaude oraintxen.
SIMONA. ¿Patáŕa edan-da gaudela uste al dezu?
ANA-MARI. Edan gabekoak obeak dira .... Baño tira, Simona, entzun bear nazu apur apur bat. Nere alaba Ines'k zerbait esan dit ¿egia al da?
SIMONA. ¿Txoratu al-zera, andrea? ¿Nik zer dakit zure alaba zein dan ta zer esan duen?
ANA-MARI. Nere alaba zure Karmen'en laguna da, ta zerbait jakingo zuen.
SIMONA. Ez dakigu bada zer dan *zer* ori.
PILAR. Bai, bai, Ana-Mari egia da.
ANA-MARI. ¡Egia da beaz! !Ai Simona! Asko samintzen gaitu beŕi onek.
SIMONA. Ara emen beŕiz beste Jeremías; negar pixka-bat egin bear zenuke.
ANA-MARI. Zuk bai egin bear zenukela; badezu zergatik.
SIMONA. ¿Negaŕa? ¿Zer dala-ta?
ANA-MARI. Baño, Simona, ¿nork burua berotu dizu?
SIMONA. ¿Iñork burua berotu beaŕik bai al det bada nik? ¿Umea al naiz bada ni, egin dezakedan gauza nai detanean ez egiteko? Badirudi gaitzen bat datorkiola ortik nere Karmen'ei.
AXENTXI. Ona baño geyago, Simona; eta benturaz bere galera.
SIMONA. Ixilik zaude nai badezu; beŕitzua zu galanta.
AXENTXI. Simona, ez emen esan oŕelako gauzik, emen beŕitzurik ez dago-ta.....
TERESA. Tira, tira; ez degu emen muturka asi bear.
PILAR. Emakumea, etzaitezela oŕela jaŕi.

ANA-MARI. Ez dakizu zure alabak zeer negaŕak dauzkan.

SIMONA. ¿Negaŕak? Petrala aundia. Ixilduko det nik aŕapatzen badet or. *(Zalapartan alde egingo du).*

AXENTXI. Banoa ni ere. *(Iges laixterka).*

9 GAREN SAYOA

Pilar, Teresa, Ana-Mari; gero Nati eta bi nexkak

TERESA. *(Elkaŕi begira aŕituta une batean egon ta).* ¿Zer da au Pilar?

PILAR. ¿Zer dan au? ¿Esan zazu zein da au?

ANA-MARI. ¿Eta beste ori?

TERESA. Jaunak lagun bekigu.

PILAR. Beaŕa izango diñagu.

ANA-MARI. Eta orain nora dijoaz oyek, eta ¿nora goaz gu?

PILAR. ¿Nora?

TERESA. Umien biĺa oyek.

PILAR. Bai, ta gu oyen biĺa beŕiz.

TERESA. Ez degu ezer auŕeratuko; etsitzea onena, Pilar.

PILAR. Teresa, ontan etsi? Ez nere laguntxoa, ez. Asi geran ezkero, auŕerago joan gabe ez det nik etsiko. Egin genezakena egin bear degu. Gero an dago Jaungoikoa.

TERESA. Baño ¿nola uŕeratu beŕiz pisti oŕen auŕera?

PILAR. Bestela ezin bada, Guardi - zibiĺakin, Teresa.

ANA-MARI. ¿Ai, ta umeak non ote ditugu?

PILAR. Teresa, zoazkit biĺa.

TERESA. Amak arkitu badu... *(Abiatúko da atera).* Ementxe dira.

NATI. *(Saŕeran)* Ementxe gera bai.

PILAR. ¿Non ziñaten, Karmen?

KARMEN. Or, babesean.

TERESA. Ta ¿ez dituzute ikusi?

NATI. Guk bai ayek; baño ayek gu ez.

ANA-MARI. ¿Zein aldetara jo dute bada?

NATI. Etxerontz noski.

ANA-MARI. Orduan.....

PILAR. Bai; ez degu denborik galdu bear. Karmen, zuek emen zeraten bitartean, nik zure ama arkitu bear det. Zure eta nere aingerua lagun izan ditzadala. Zuek nai dezutena egin.

TERESA. Guk nai deguna zerbait egitea da.

NATI. Guazen bada guztiok.

INES. ¿Gu ere bai?

PILAR. Zuek ordu erditxo batean beintzat emen egon. Eta bitartean gure Amaren oñetan otoi egin biyok benetan.

KARMEN. Agur bada.

10 GAŔEN SAYOA

Karmen ta Inés

(Minutu bat edo bi biyak belauniko otoi egin bear dute)

KARMEN. (*Bakaŕi, Ines belauniko*) ¿Nork eman dit neri biotz au? Eta ¿nork, Jauna, jaŕi du emen, biotzaren erdian, Zuganako ixki eta beñere ase ezin dan egaŕi au? ¿Nork, Jauna zuk ez bada? Sutan daukat biotza.

¿Zuk sutu al diazu, Jesus? ¿Zu maitatzeko? ¿Zu beti maitatzeko? ¿Zu beste iñor ez maitatzeko?

Ala nai det; auxe nai det... Maitezko zure deya aspaldi entzun nuen; ez dit beste iñork bultza loxintxaz; Zuk bakaŕik, Jauna, Zuk naramazu maitezko katez lotua.....; Ez beneza iñork okertu; ori da nere bidea; ortik narama Jainkoak; or dago nere zori-ona..... Baña ¡au zori-txaŕa, nerea! !Nere amak!.....¡Nere amak, munduko luŕaz nere biotza estalita, itzali egin nai dit ain atsegin zaidan zure maitezko sua.

Jauna, zuk zeretzat autu nazulako, ama aseŕetu zait... ¡Mundurako nai omen nau..! Eŕukaŕia naiz, Jauna, eŕukaria naiz....! Zu bete-beteko biotza eman zenidan.... eta ¿nork aseko dit zuk ez bada?.... Zure deya da nere zori ona... Amak ez dit entzun nai. ¡Zeruak entzun bezait; bestela amak galdu bear nau.....!

INES. (*Altxata*) Ene Karmen; ori ez, ori ez. Amak etzaitu galduko, nik Konbentutik beti zure alde otoi egingo det. (*Laztanduta egon bear dute azkena arte*).

KARMEN. ¡Ai nere Ines maitea! Eskeŕak biotzetik...; baño nere ama ez da zurea bezela. ¡Ai, ama baten alabak bagiña....! Baña..... (*negaŕez*). Jauna, Jauna, nere kaltez nik zu uztea gertatuko balitz, zuk ez nazazula ni beñere utzi, ez nazazula utzi...

INES. Etzaitu utziko. Jaunak ez du nai gu biok

banakatzerik. Karmen elkaŕekin bizi eta elkaŕekin il.....

KARMEN. (*Geldi-geldi*) Elkaŕekin bizi eta elkaŕekin il.

SIMONA. (*Guztiz asaŕe eta zalapartan*) Ez, ez; impernuan tokirik bada, ori ez, beñere ez. (*Besotik elduta astinduaz*) Inesekin ez... deabruarekin bai..... Deabruarekin bizi..... eta.....

KARMEN. ¡Ama!.. Jesusekin il.

Oyala aguro.

BIGAŕEN EKIN-ALDIA

ANTZOKIA.—«*Andik urte betera*». *Jan-gela edo komedore txukun bat.*

LENDABIZIKO SAYOA.

Simona bakarik.

SIMONA. Ernegatu bear zait neri. Inpernuan ere ni baño obetogo bizi diranak izango dira. Egunetik egunera okeŕago eta beti kiskalmen bizian. Jateko sortu eziñ ta bizi ezin ta bizi nai. Lanerako bakaŕik nago, jateko bi gera. Neronen burua asko ez dealarik, ama añako alaba neronek elikatu (mantedu) bear.

Zartzaro ona datorkit bai, oso ona. Azi ditzatzue alabak, ler egin beragatik, erantzungo dute bear bada.

Or daukat amazazpi urteko alaba. Bera ikusita edozeiñek esango du, zorionekoa dala bere ama. Bai; ikusi egin bear ori. Nik nayago nuke bere ama ez banitz. Artara nere diña nolabait sortuko nuke ta kito. Lau kuarto irabazten baditu, bost ondatzen ditu bere tximak apaintzen, eta gero soñeko bat egin bear duenean amari diru eske. Oyek dira nik oŕengandik dauzkadan alderdi onak.

Orain urte bete, moja joateko ibiĺi zan; ¡ai,

joan balitz! Pake obean biziko nitzan gaur. Inpernu bizia oŕetxek ematen dit.
Bart ez dakit ze ordutan etxeratu dan; gaur oraindik ez da gelatik atera eta bederatziak dira. Ijito batekin bada ere, ez da bein ezkontzen or, da pakea. Ez da ba libertaderik ta apainketarik jartzen ez diyoalako. ¡Suerte gaiztoa, eta besterik ez! Ontzi zar batean Amerikara bialduko det eta or konpon.....
(*Deituko dio*) ¡Karmen!.... Baden gelako atea irikitzeko ordua. Lotsa pixka bat bear uken, goiz garai onetan oŕela egoteko.

2' GAŔEN SAYOA.

Ama—alabak.

(Karmen apain, oso mundutar agertuko da; baño «ondo estalia».)

SIMONA. Ordua den neska....
KARMEN. (*Oso aŕo*) Ze ordu ta ze «musika», gosaltzeko ere ordua bada, eta bekar pakean.
SIMONA. Oŕa; edozeñek esango liken ongi irabazia daukanela, lotsagabe oŕek; goizeko bederatzietan oitik atera orduko, auko zulora gosari eske baldin bago; ire neskamia izango naun ni.
KARMEN. Neskame izan nai ez badu, ama izan bedi; ori asko zait, amak beren umeak mantentzera beartuak daude; bestela ez izan guraso.
SIMONA. Gurasoen egin-beaŕai bezela ez dien ik

ere bearkunei begiratzen ¿Ez al dakin ama zaŕari alabak begiratu bear diola?.

KARMEN. (*Isekaz*) Ongi da ama. Zartu bitartean neri begiratu bezait, eta nik gero begiratuko diot.

SIMONA. !Ai nere alaba!. Aŕen, ez nazala Jainkoak zartuta ire eskuetan utzi. Ez niken kalbario txaŕa izango.

KARMEN. Ama, ez det goizetik sermoi beaŕik, gozaria bear det; bederatziterdiak dira ta orain-dik baraurik.

SIMONA. Biyar oyera eramango diñat alper zikin oŕi, ago.... (*Ama gozari bīla joango da Bitartean Karmen'ek ispīluan imintziyo batzuek egin bear ditu, īliak txukundu, arpegia, begiak, soñeko ta tresnak. Gero mayan jaŕi, okerka exeri ta, gañean egon bear duten edozein «Revista» artu, eta nastu, bat, bi, iru, nai duen aña; aspertuko da laixter eta sartuko da bere gelan. Gero laixter ama gozariakin agertuko da.*)

SIMONA. ¿Non aiz? ¿Beŕiz oyera joan al aiz? Ara emen gozaria. Len presa unan, eta orain utzi zan emen oztu arte, eta eman gero neri eŕietan.

KARMEN. (*Gelako atetik.*) Bekar onera, kape ondar ori non-nai artuta ere berdin izango da ta.

SIMONA. Ik ekaŕiko digun Puerto-Riko'tik obea. (*Emango dio esanaz*). ¡Ai, esker gaiztoko alaba! (*Karmen bere kape ta guzti gelan sartuko da.*)

3'GAŔEN SAYOA

Simona ta Axentxi

SIMONA. Beti bezela gaur ere. Goizeroko gure **ére-zoa** auxe da. Ni ernegatzen ta kixkaltzen, ta ori imintziyoan, xitalkerian, ta gero egun guztian puxinduta. Baño ..... *(Guztiz ermo)* ez gera auŕera era onetan bizi bear. Norabait egin bear du zirt edo zart.

AXENTXI. *(Atetik.)* Ori, ori; zirt edo zart. Kanpantoŕea añako alabak amaren izardia jaten ez du egon bear; zirt edo zart, Simona.

SIMONA. Ongi etoŕi, Axentxi. Zu bazatoz nik baño ederkigo lo egin ta. Zu bezela bizi banitz.

AXENTXI. Nik baño obekigo bizi bear zenuke zuk. Etzaude esan gabez. Nai bezela bizitzeko era jartzen dizut nik. Ekatzu alaba ori, Simona; zurea ta aren zori-ona eskuan dauzkat eta.

SIMONA. Egon bitez bada beti zure eskuan; bide oŕetatik ez det nai zorionik. Ni ez naiz santua izango; baño ama naiz, Axentxi.

AXENTXI. ¿Eta zer oŕekin? Simona, badirudi zure kaltean nabiĺela, onbidea besterik jaŕi ez dizut eta.

SIMONA. Zure asmoak onak izango dira, baño gure kaltean datoz..... Bide ori **ez**, Axentxi, bide ori **ez**.

AXENTXI. Nik, ez det bada besterik.

SIMONA. Gaur ez izan aŕen, bigar sortu diteke, eta ez gaituzu era bat utzi bear. Ara emen bera *(Karmen gelatik aterako da.)*

AXENTXI. Simona, etzaitut utziko, lagun naiz ta laguntzeko naukazu.

SIMONA. Eskeŕik asko, Axentxi; ta gero arte, onekin uzten zaitut.

AXENTXI. Zoaz ondotxo, Simona.

4'GAŔEN SAYOA

Axentxi ta Karmen

AXENTXI. *(Beti lo.xint.xaz.)* Nere izar edeŕa; ez daukazu gau galduaren itxurik.

KARMEN. Oraindaño lo egin baidet.....Baño nekatua nago oraindik. Atzoko ori geitxo zan Axentxi. Aŕatsalde guztian gelditu gabe, zapata pare bat uŕatu nuen. Gabian «Lagun-arte» ko biĺeran iya guztia nere gain joan zan. Nere oñak eta nere eztaŕia ez dira gero burnizkoak, Axentxi.

AXENTXI. Egia da; etzera geiegi beartu bear. Oraindañokoak ongi daude. Munduak ezagutu bear ziñuen. Izar edeŕa laño-pean ez da ezagutzen, Karmen. Gaur badakite izaŕa nun dagoen; atea ez edozeñei iriki. Zuk nai badezu zure izena laixter goyan agertuko da. Bart gabean irabazitako txaloak, kaletik entzun ziran; eta izpaŕingiak *(periodikuak)* zure izena letra aundiakin dakar. Laixter zera erbestean.

KARMEN. Baño, nere amak, ¿naiko al du?

AXENTXI. Zure amak gaur ez du nai, baño... .gero.....eroriko da ....naiko du. Orain-

txe esan dit, zurekiko lan oni ez dezayodala utzi, eta ez diot utziko.

KARMEN. Eskeŕak Axentxi. Nere alde zenbat sayatzen zeran; zu izan ez baziña, ni onezkero Konbentuen batean «abuŕitua» negon.

AXENTXI. Ori ez. Ni ez izan ta ere, zure amak etzizun utziko; ¡poliki! ori galerazteagatik ni bitarteko jaŕi niñun-ta.

KARMEN. ¿Bai zea esan?

AXENTXI. Ementxe, Karmen, ementxe; zu zu-re lagunakin bero-bero zebiltzala, karta bat arkitu zizula ta.....

KARMEN. !Ja, ja, ja! Anjelitaren karta, ni moja eraman nayean ¡Ja, ja, ja!

AXENTXI. Onera deituta esan ziran; Axentxi, nere ume ori iya txepeldu diate beren moja-kontu ta txorakeriakin; jayetan artu zaidazu zere kontura, eta eraman burutazio oyek kenduko zaizkan tokira.

KARMEN. Ez nekien.

AXENTXI. Oŕegatik atera ziñan andik.

KARMEN. Ondo kostata. *(Atean deituko dute.)*

AXENTXI. ¿Zein degu ordu onetan emen?

KARMEN. Nik ikusiko det. *(Joango da.)*

AXENTXI. Ba-ez-badare, gorde nadin txokoan. *(Baztartuko da.)*

5'GAŔEN SAYOA

Lengoak, Pilar; gero Ama

PILAR. *(Atean.)* ¿Sartuko al naiz?

KARMEN. *(Bultzaka.)* Ez, ez, ez diteke; atzera, kan-

pora, ez diteke; ¡Ama! ¡Ama! *(Axentxik arpegia estali ta Pilar sartzen danian iges egingo du.)*

PILAR. ¿Ze ez, ta ze bai, ta ze ama, ta ze amona..? (*Pilar jaŕiko da gelaren erdian eta Karmen joango da igesi*).
¿Guztiok igesi? Etzaituzte oŕek asko goratzen. Arpegia agertu nai ez duenak ez dauka biotza garbia. ¡Ai, Axentxi, Axentxi! Oraindik agertu bear dira zure ezkutu naztu oyek; Jainkoari ez dio iñork beti paŕ egingo.

SIMONA. (*Saŕeran*). ¿Zein degu emen?

PILAR. Simona; ez joan igesi, besteak bezela; ez nator iñoren kaltean. Zuk ezagutzen nazu, aztu ez bazera. Zure alabak ezagutu nau, baita bere atzetik bere kaltean dabiĺen sorgiñ oŕek ere.

SIMONA. Itzera ezagutzen zaitut; izena aztu zait baño; aŕitzekoa ere ez da-ta. Urtea izango da ikusi ez gerala.

PILAR. Ni naiz bada zure alabaren alde oso ziñez sayatu nintzan Pilar, Dotriñako irakasle ayetako bat.

SIMONA. ¡Ai orduan bezela bagiña! ¡Negar egiteko aldaketak dira gure etxean! Etzenduke gure Karmen ezagutuko. Alperkeriari eman dio; lotsagabekerian ito bear nau beŕiz, eta ernegatua bizi naiz. Ez dakit nora joko duen eta non geldituko dan.

PILAR. ¡Ai, Simona! ¿Daraman itxuauŕeko oŕek nora eraman lezake? Jainkoaren bildur gabeko andre nastu oŕek bide onik era-

kutsiko etziola jakin bear zenuen. Gure artetik atera-ta oŕen eskuetan utzi zenuen. Guk gora begira bezela oŕek bera begira jaŕi du; eta munduaren irakas-gaiak (*leziòak*) aldatu dute zure alaba.

SIMONA ¡Aldatu! Esango nuke. Ori orain urte bete ikusi ta gaur ikusi, ez da berdiñ. Nere auŕean begi bat etzuen altxatzen; gaur ijitoa baño lotsagabego da.

PILAR. Eta guztia zuk oraindik ez dakizu. Etxean zer egiten duen ikusten dezu; baño kanpoan?....

SIMONA. Bakaŕik ez da bada ateratzen ta.....

PILAR. ¿Bakaŕik? Obe zuen bakaŕik beti ibiĪi balitz eta ez zaindàri oŕekin. ¡A, zer laguna bera! Ordu onean jakin nuen andre gaizto oŕen asmo galdua; aŕeskero nere biotza Karmen dala ta ez dala zurea baño samiñagoa dago. Zuk ez dakizu oraindik andre ori zein dan.

SIMONA. ¿Zer gaitz ikusi diozu bada? Nik badakit ez dala beste asko beziñ Elizkoi ta àpaizzalea, baño..... beintzat.....

PILAR. Tira, Simona; ¿bart alaba zer garaitan etxeratu zan?

SIMONA. Ez dizut esango, ez naiz oartu; giltza berekin zuen-ta ixilik ibiĪia da.

PILAR. ¿Eta nun ibiĪi dan esango zenuke?

SIMONA. ¿Nola esango det bada? Ori Axentxik esan bearko du; eta egia esan, etzait bururatu galdetzerik.

PILAR. Ez galdetu, Simona; berdin izango da ta.

SIMONA. ¿Zer bada?

PILAR. ¡Ai, tristia! Axentxik zu obekigo ezagutzen

zaitu, zuk Axentxi baño. Ark badaki zuri zer esan ta zer gorde.

SIMONA. Emakumia, ez nazazula jaŕi zalantza txaŕean.

PILAR. Len jaŕi bear ziñan, eta benturaz etzenuen orduan zure alaba, orain ikusten dezun eran ikusiko. Jainkoak nai etzuen gauza bat egin zenuen, eta bere zigoŕa asi dala uste det zure gañean.

SIMONA. Jainkoak nai etzuena..... nai etzuena..... orixe da ba..... zea.....

PILAR. Begira, Simona; oŕela ez degu ezer egiten. Zure alaba artu zazu estu, oso estu..... eta ia zer dion. Ni banoa.....

SIMONA. ¿Etoŕiko zera, ordea?

PILAR. Bai, etoŕiko naiz; eta ekaŕiko ditut lagunak. (*Joango da*).

6' GAŔEN SAYOA

Ama-alabak.

SIMONA. Karmen, ordu onean zatoz.

KARMEN. (*Saŕeran*) ¿Joan al da?

SIMONA. ¡Ai! ¿Bildurtu egiten zaitu zure onez ta beti zure alde dabiĩen andre oŕek?

KARMEN. Ez dakit bildurtu ala lotsatu.

SIMONA. ¿Lotsagaŕi al zabiltza bada umea? ¿Ez aldaki bada mundu guztiak zu nola zabiltzan?

KARMEN. Mundu guztiak bai..... (*Bere artean*). Amak ez gañerako guztiak. Baño ama, oiek zein diran badaki; utsakin izutzen diran erdi-mojak.

SIMONA. Etzekiñat ba, oiek geyegi ala gu gutxigi izutzen ote geran. Pilar onera ez du gero utsak ekaŕi. Zuk beŕiz amari ez diozu bear aña zere bideen beŕi ematen; Axentxi beŕiz aspalditxoan dabil emen itz-legunaz ni igurtzi nayean. Biyok maltzur, oso maltzur ikusten zaituztet..... eta..... ¡Karmen!

KARMEN. ¡Ama! Baño ¿zerk bildurtzen du? ¿Bear ez dan gauzik ikusi al dit neri? Lotsagabexamar nagola, orixe.

SIMONA. Ori egunero ikusten diñat; etzaukanat iñori galdetu beaŕik. Baño, Karmen, Kanpoan? ¿Or kanpoan?

KARMEN. ¿Kanpoan? Galdetu beza; ia iñork bear ez dan eran beñere ikusi nauen. (*Asaŕe*). ¡Jesus! Badirudi nabiĪela or.....

SIMONA. Tira Karmen, ez orain emen aŕotu. ¿Bart noiz etxeratu ziñan?

KARMEN. ¿Ni?.... ¿Zeñek jakin bear du?

SIMONA. Zure amak.

KARMEN. Oraindaño beñere ez dit gauza oŕetan galderarik egin.

SIMONA. Onegia naizelako. ¡Ai, egunero artu banizu! ¿Bart non ibiĪi zera?

KARMEN. ¡Baño ama! ¿Ni ez al nitzan beoŕen aginduz gabero Axentxi'kin ateratzen azi?

SIMONA. Bai, ta zori-gaiztoan.

KARMEN. Bada orain, or konpon.

SIMONA. Or konpon ez, Karmen, ori ez; ama bati ori ez esan.

KARMEN. Pilar txatxu oŕek zerbait esan dio.

SIMONA. ¡Ai Karmen! Ez nuen uste Pilar oŕelakoa zanik. Pilar oraindik zure oiñ-aŕastoan da-

bil, eta zure ibiĺerak nik baño obekigo neurtu dizkitzu. Pilar'ek maite zaitu benetan, eta beste egiteko gabe zure biĺa etoŕi da.

KARMEN. ¡Ja, ja, ja, ja! ¿Nere biĺa? Moja eaman naiko nau ¡Ja, ja, ja, ja! Amets orixe daukat oraintxen buruan.

SIMONA. Badakit amets ori zure burutik aspalditxoan iges egiña dala; bide oietatik gaur uŕut iikusten zaitut. Baño Pilar gaur ez dabil oŕen biĺa; gutxigokin poztuko litzake bera, ta zure ama ere bai.

KARMEN. Ama, ni nagon eran pozik nago, eta Pilar bijoa beste txoroak atzipetzera (*engañatzera*), beoŕen alabak begiak zabal dauzka, ta ez du itxu-auŕeko beaŕik.

SIMONA. Zabal dauzkatzu bai; ordu txaŕian zure amak zabaldu zizkitzun aingeru batzuen eskuetatik atera-ta, etsaien besotan jaŕi ziñuzenean. (*Joango da*)

7' GAŔEN SAYOA

Karmen bakaŕik

KARMEN. (*Ajoliḱ gabe*) ¡Phs! ¿Eta neri zer? Berak oker egin badu, zuzendu beza nai badu. (*Emen zerbait abestu dezake*)....
¿Baño biotza nork aldatu dio nere amari? Pilar nere atzetik dabiĺela eta «peapa» guztia sinistu dio. Len Pilar gure kaltegaŕi zan, Axentxi beŕiz gure onez zebiĺen andre ona ta leyala. Gaur Axentxi ez du begi onez ikusten; Pilar'ek beŕiz benetan maite

omen nau. Emendik aurera Pilaren esana egin bearko da noski. Datoren Igandetik beriro Dotriñara. !Ja, ja, jai! ¡Beranduko ametsa! Axentxik dotriña beria erakutsi baidit. ¿Orain au utzi ta atzera lengoa? Artarakoxe dago nere amaren alaba. Ez da «Guardi-zibilak» ekartzen badizkit ere. Ongi begiratuko lirateke nere lengo lagunak. ¿Zer egin ote zuen nere Inesek? Gaxoa Konbentuen batean «preso» an egongo da.

8' GAREN SAYOA

Karmen ta Axentxi

AXENTXI. (*Ixilik, oin puntetan*)¡ Karmen! (*Be-beetik*)
KARMEN. ¡Oi! ¡Nere Axentxi! Ordu onean zatoz.
AXENTXI. Ixilik, iñork ikusi gabe sartu naiz ta.
KARMEN. Nere ama oso aldatu da.
AXENTXI. Badakit, badakit.... Zure amak ez nau gaurtik begi onez ikusiko.
KARMEN. Pilar emen izan da ta....
AXENTXI. Pilar emen izan da ta Pilarek galdu bear gaitu. (*Axentxi emen beti zalantzan, bilduŕez, atera begira.*)
KARMEN. ¿Eta nere amak sinistuko ote dio?
AXENTXI. Bai; guztia badakit nik Karmen. Pilar beriz etortzekoa da, eta zure amak entzungo dio. Ana-Mari ere etoriko da ta.....nere kalte *(kontra)* itz egingo dute; baño zuk ez sinistu. Mila gezur esango dituzte, nere izena ondatuko dute; baño, Karmen, ez siñistu.

KARMEN. Egon lasa Axentxi; jakiñean egon ezkero.
AXENTXI. Ni ezkutuan ibiĺi bearko naiz; baño etzaitut utziko; neri jaŕaitu. *(Itz otsa entzungo da, ta Axentxi alboko gelan gordeko da.)*

9'GAŔEN SAYOA

Karmen, Simona ta Pilar

SIMONA. *(Atean Pilar'ekin itz egiten.)* Ara, ementxe dago bera. ¡Karmen! Ia au ezagutzen dezun. *(Karmen oso aŕo ta gogo gaizto «disgusto» aundian jaŕiko da.)*
KARMEN. Nik ez, eta ez det beaŕik ere.
PILAR. ¿Karmen, ez nazu ezagutzen? Ez da aŕitzekoa, urte osoa ikusi ez gerala. Gugandik uŕuti xamar ibiĺi zera ta.
KARMEN. Lenago uŕutiratu banitz ez nuen ezer asko galduko; alpeŕik urtea pranko galdu ditut an.
PILAR. ¿Alpeŕik e? Orain daramazun bizitzarentzat bai, alpeŕik eta kaltegaŕi; an ikasiak lotzen bai-zaitue orain; ¿bestela gaur non ziñan?
KARMEN. Ez dakit .... ¿Eta orain gaizki bizi al naiz bada?
PILAR. Bai, Karmen; nik badakit orain nola bizi zeran, zure amak baño obekigo alare. Zuk ni aztu ninuzun; baña nik zu etzaitut aztu, eta etzaitut aztuko-re.
KARMEN. Eskeŕik asko.
PILAR. Zori txaŕean zure amak, benturaz on beaŕez, *(nik barkatu diot)* andre galgaŕi baten

eskuetan utzi ziñuzen, eta oŕek, paltsikeri, gezur ta loxintzaz betetako oŕek, egin du zurekin nai duena.

SIMONA. Nai duena ez.....

PILAR. Egia da; nai duena ez, zuk utzi ez diozulako; baña aren asmoak ala dira; eta gaur ez bada bigar egingo du, bere mendetik ateratzen ez bazaitugu.

KARMEN. Egin dezala ba bere gogo ori, nerea ere orixe da ta.

PILAR. Baña Karmen, ¿ez dezu ikusten etsai gaizto baten eskuetan zaudela, eta etsayak ez dizula beñere gauz-onik opa?

KARMEN. Nik badakit zeñen eskuetan nagon, eta nere asmoa ongi erabakia daukat.

SIMONA. ¿Karmen, uste al dezu au zure kaltean dabiĺela?

KARMEN. Alpeŕik dabiltza, ama, alpeŕik, alpeŕik eta alpeŕik. ¿Beŕiz esatea nai al du?

PILAR. ¡Ai, Karmen! Damutu bear zaizu.

KARMEN. Amen bada. *(Zanpa exeri, burua mayaren gañean bota ta baztaŕera begira jaŕiko da.)*

SIMONA. Guazen Pilar, alpeŕik da ta.

PILAR. Aguŕ Karmen.

KARMEN. *(Aupean altxa gabe.)* ¡Aguŕ!

10'GAŔEN SAYOA

Karmen ta Axentxi; gero Simona

AXENTXI. *(Gelatik atera ta.)* Ederki Karmen, ederki; ez utzi nere itza, aspertuko dira ta.

KARMEN. Ez dago bilduŕik, Axentxi; setan ez dit iñork eramango.

AXENTXI. ¿Entzun dezu? Zataŕ zaŕ bat bezela jaŕiko naute; baño.....

KARMEN. Zerutik aingeru bat etortzen bazait ere, ni zurekin.

AXENTXI. Ederki Karmen. Laztan bat. *(Laztanduaz).* ¡Nere izaŕ edeŕa!

SIMONA. *(Bat batetan.)* ¿Baño zer da au?

AXENTXI. Galdu gera Karmen.

KARMEN. *(Igesi.)* ¡Aguŕ!.....

SIMONA. *(Guztiz asaŕe.)* ¿Nondik sartu zera zu onera ta noiz?

AXENTXI. Ez asaŕetu, Simona.

SIMONA. ¿Ez asaŕetu? Beste biderik lendik ez banu, au naikoa da asaŕetzeko, ¿noiz sartu zera zu onera?

AXENTXI. Gogoak eman diranean; ¡ze aŕaye! Orain-daño etxe ontan neretzat ateak zabal-zabalik egon dira, eta iñork ez dit saŕeran «bi-ĺeterik» eskatu.

SIMONA. ¿Ta oŕek aŕotu zaitu nere alabarekin nai aña guztia egiteko?

AXENTXI. Zeoŕek aginduta Simona, zeoŕek aginduta.

SIMONA. Badakit. ¡Zori gaiztoko nere agindua!

AXENTXI. Tira ba.....

SIMONA. Baño zu nere agindua baño auŕerago zoaz; neri gauza bat esan ta alabari beste bat; neri bide bat jaŕi ta alaba beste batetik eraman.

AXENTXI. ¿Nork esan du ori?

SIMONA. Nik esan det ori..... Eta gañera zu ixpi gaizto bat besterik etzera.

AXENTXI. Ni ez naiz beñere ixpia izan.

SIMONA Zu ixpia, bai, zu; or, gelan gordeta egon zera gure emengo itzak jasotzen.

AXENTXI. Gezuŕa da ori.

SIMONA. Egia, egia ta egia. Zoaz nere begien auŕetik; etzaitut geyago nere etxean ta kalean ikusi nai.

AXENTXI. Au iraiñ (*kalumni*) aundi bat da.... banoa bear dan tokira.

SIMONA. Zoaz inpernura, nai badezu.

11' GAŔEN SAYOA.

Simona, gero Ana-Mari ta Ines.

SIMONA. Lotsagabe gaiztoa. Ez nuen uste ez, andre oŕek oŕelako ausardia izan zezakenik. Besteren etxean sartu, gelan gorde ta izkututik gure itzak jaso, gero nai duena egiteko. Or ezagun da, Pilar'ek esan didan guztia, egia dala. *(Eskuak burura eraman-ta)* ¡Au itxumena izandu nuen nik, nere alaba Karmen, aingeru aien eskuetatik atera-ta, otso gaizto onen eskuetan jartzeko! ¡Ai, ori gaur egin bear izan banu! ¡Aŕen, nere gaiztakeriaren zigoŕa ez bedi erori nere alabaren gañera! ¡Zigortu beneza ni Jainkoak, baño salbatu bedi nere Karmen! (*Atea deituko dute*) ¡Auŕera!....

ANA-MARI. Gabon digula Jainkoak.

SIMONA. Baita zuri ere.

ANA-MARI. Ez dakit gogoratuko zeran nizaz, Pilar'en aginduz nator; ni naiz.....

SIMONA. Ez esan, ez esan, zuzaz aztuta ez nago ta, zure esanaz ere ez.

ANA-MARI. Nere esanaz... zerbait gaizki esan badet, barkatu.....

SIMONA. Zuk neri egindako gaitzik ez det beñere gogoan; ondo egiña bai; azkenekoa ementxe, nere Karmen'en alde eŕegutzera etoŕi ziñanean. Etzaizkit aztutzen zuk emen esandako itzak. ¡Ai, Jaŕaitu banie!

ANA-MARI. Oraindik zerbait egin genezake. Pilar sayatzeko dago.

SIMONA. Pilar gaxoa, onegia da guretzat; guk merezi ez bezela dabiĩ gurekin. Gaur bezela orain urte bete ezagutu banuen bera, ez nuen orain oŕela ibiĩi beaŕik. ¿Jakingo dezu noski?

ANA-MARI. Berak esan digu guztia. Gañera periodikuak dakaŕ, beste askoren artean zure alabaren izena. Bart or egin duten alaolako jai nastu oŕetan auŕen xamar ibiĩia izango da noski.

SIMONA. ¡Jainkoa! ¡Ori ere badegu!

ANA-MARI. ¡Karmen gaxoa! ¡Nork esan!

SIMONA. ¡Nork esan! ¡Ikusiko bazenu!

ANA-MÀRI. ¿Eta ez genezake bere alde ezer egin?.... Zuk nai izan ezkero..... nik uste det.....

SIMONA. ¡Ai, nere oraingo naya berandukoa da! ¡Len nai izan banu!.. Len alabak nai zuen, nik ez nuen nai; orain nik nai det, baño alabak ....

ANA-MARI. Sayatuko gera; nere alaba Ines badijoa bere bidean, ta aguŕ egitera bialduko det... eta nork daki?.... Len aiñ maite ziran ta..,

SIMONA. Ongi deizkiot, alpefik izango al da baño...

ANA-MARI. Laixter arte bada; Ines berealaxe emen da..... (*Biyak albo batetik joango dira, eta berealaxe bestetik agertuko da Karmen*).

12' GARÈN SAYOA

Karmen ta Axentxi.

KARMEN. (*Agertu diteke beste soin batekin aŕokeriz betea*). Iñor ez. Bazan bada bateon bat. (*Ate guztietatik begiratuko du, egin ere bai mīla imintziyo ta txorakeri*). ¿Pilar ote zan beŕiz? Bestela Ana-Mari... ¡Phs! Berdin zait eŕian diran andre guztiak eŕenkadan ekartzen badizkit ere..... (*Mai gañean Ana-Marik utzi duen periodikua ikusiko du*) ¡Ene, gaurko periodikua! ia, ia..... (*irakuŕiaz*) «La Gran fiesta de anoche» (*Jardungo du irakurtzen bezela*) uuuuuuu... ¿Ez ote dakar ezer neretzat....? uuu... «Emen dago.... «La sin par bella y simpática Carmentxo, lució.....» ¡Oh! ¡Ez daki gure Axentxik!

AXENTXI. (*Lotura «pakete» aundi batekin agertuko da*). Badaki bai Axentxik ori ta beste zerbait ere..... Mundu guztia laixter zuretzat.

KARMEN. (*Betetasun osoan «satisfecha»*) Mereziko baitet.

AXENTXI. Bai edeŕ oŕek; eta oraindik ez dakizu zer

gertatu bear duen onoko soñeko au jazten dezunean. (*Lotura azkatuta*)

KARMEN. (*Pozik*). ¡Ene, Axentxi! ¿Zer da au?

AXENTXI. Axkar, axkar, nola daukazun ikusi bear degu. Laixter degu beste jai sonatu bat eta lengo soñekoa ez da bidezkoa; au jantzi bear dezu.

KARMEN. ¿Orain erantzi egin bear naiz?

AXENTXI. Ez da premizkoa; gañetik jar-zazu ta igaŕiko diot.

Soñeko au oso nabarmena izango da, beso gabe, papar zabala eta oso motza, baño egal «eŕuera» aundikoa. Len daukanaren gañetik jantziko du).

Ez dauka ikutu beaŕik; guztizkoa da. Arin arin ibiĩi bear zera, nere aingeru edeŕ ori. *(Muxu bat emango dio).*

(Its otsa entzungo da ta zalapartan erantzita Axentxi joango da bere soñekoakin).

13' GAŔEN SAYOA

Karmen, Simona, ta Ines

SIMONA. (*Saŕeran).* Ara emen zure lagunik maiteena, Karmen.

KARMEN. (*Ikusi ta baztaŕera begira*) ¡Puf! *(Amari begira).* Izandua.

INES. *(Apal, bera, goxo laztanduaz).* Ta izango naizena, zuk nai badezu.

SIMONA. Ori lengoa da, Karmen.

KARMEN. Ni ez ordea, ta ez det izan nai ere.

SIMONA. Elkaŕekin ziñatenian ¿ez al ziñaten ondo bizi?

KARMEN. Ez dakit. Orain obeki bizi naiz. Eta Ines'ek ni nola bizi naizen baleki, laixter bera ni bezela.

INES. Eta Karmen'ek ni nola bizi naizen baleki, laixter bera ni bezela.

SIMONA. Ordu onean zaudete bada biyok elkaŕi bizitza agertzeko. Or gelditzen zerate; nik bitartean zer egiñak baditut. *(Simona joango da).*

KARMEN. Exeri zaitez bada ementxe.

INES. Eskeŕik asko, Karmen. Baneukan aspalditik zukemandako aulkian exertzeko gogoa.

KARMEN. Gogoratu egin bear...

INES. ¡Karmen!

KARMEN. Ni beintzat egia esan bear badet, laixter aztu nintzan, Ines zanikan ere.....

INES. Ni ez, Karmen; egunero gogoratu zaitut. Zuk ni aztutzeak ez nau aŕitzen....

KARMEN. ¿Zergatik bada?

INES. Zerk aztua erabiliko bai zenuen.

KARMEN. Ezin ukatu.

INÉS. BañoKarmen; emen iñork ezdigu entzuten; biotzetik biotzera esan bear diazu: ¿lengo biziera garbi, goxo, goi-goiko arezaz beñere ez altzera gogoratu izan?

KARMEN. Beiñ edo beste.... «abuŕitua» nagoen batean..... baditeke...

INES. ¿Eta lengo bizitzara biurtzeko gogorik?

KARMEN. Alaxe uste diñat. Lenago itxasora nere burua.

¡Ai, Ines! Ez dakizu zuk munduaren beŕi-

Kayolako txoria bezela zerate zuek; ez dakizute egan zeñen ederki ibiltzen dan.

INES. ¿Zu egan bizi al zera?

KARMEN. Nai badet egan, nai badet beŕiz kayolan; atea ez bai-dit amak beñere itxi izan; giltza neronek daukat. Egunaz jolas-gayik bada, egunaz noa; gabaz ezer bada ura nayago.

INES. ¿Gabaz ere egan, Karmen? Gabaz xaguxaŕak eta ontzak egan ibiĩi oi dira.

KARMEN. ¡Utikan! Ni lorategiko mitxiŕika naiz ta; beti loretik-lorera nabiĩ. ¡Ines, zer urte edeŕak galtzen zoazen!

INES. ¡Ai, nere Karmen! Itxutua zaude. Loretik-lorera zabiltzala uste dezuta LOYETIK LOYERA zabiltza. ¿Ez dakizu ba goizeko lore edeŕa aŕatsalderako txiurtuta luŕera dijoala? Gero loitan ibiĩi bear.

KARMEN. Eskeŕik-asko.

INES. Karmen, ni beti kayolan bizi naiz, eta orain kayola estugorako asmoak ditut, oŕegatik zuri aguŕ egitera natoŕ.

KARMEN. ¡Konbentura! ¡Uf! Izenak berak izutzen nau.

INES. Ni munduak; eta bere iges noa. Kayolan ez daukat eiztari, edo gau-pixtiyen bilduŕik. An biziko naiz Karmen.

KARMEN. «Abuŕitua».

INES. Ez orixe; Jesusen biotzeko kayola beziñ gauza alayik ez dago. Kayola oŕetan atsegiñez bizitzen da. Gero an goyan, kayola ortatik egatuko naiz, eta zeru edeŕ artan

mitxiŕika bezela ibiĺiko da Ines, loretik lorera..... beti... beti...

KARMEN. Ori uŕuti dago; ni orain egan.....ta egan ta egan.....

(Axentxi ixiĺik sartuta, atetik keñuka beregana eramango du Karmen, eta eskuakin onen arpegia igurtziaz, loxintzaz ta txurikeriz itz egingo dio zerbait. Bitartean Ines jardungo da onela.)

INES. ¿Zeiñ ote da emakume au? Ez dirudi bide onezko gauzik andre oŕek izan dezakeanik. ¡Ai, ene!..... Ori da noski Karme'en kayola.....kayola ez, espetxea *(kartzela.)* Karmen gaxoak egan dabiĺela uste du ta katez lotua dago. ¡Gaxoa! ¡Au bere itxumena¡

(Axentxi muxu bat eman ta iges egingo du. Karmen auferatuko zayo Ines'ei oso alai.)

KARMEN. Ni orain ere egara, egara, munduko lore guztiak bukatu arte.

INES. ¿Eta gero?

KARMEN. ¿Gero?..... Gero kayolara joango naiz...

INES. ¡Ai Karmen! ¡Egoak galduta kayolara!

KARMEN. Edo galdu baño len. ¿Ori nork daki?

INES. Aŕixkoan zabiltza. Munduko loren atzetik dabiĺenak, bere biotzeko lore garbia laixter galdu oi du.

KARMEN. ¿Ta nori zer? Ni orain mundura.

INES. Ni Konbentura.

KARMEN. Ni egan *(besoak zabalduta)* egan, egan.

INES. Zu egan, goitik bera, ni egan betik gora, gora, gora .....

KARMEN. Ni orain jolastu egin bear naiz.
INES. Nik orain zugatik «penitentzia» negarbide egin bear det.
KARMEN. Eskeŕik asko; lasago ibiĩiko naiz.
INES. Eŕuki zaitut, Karmen.
KARMEN. ¿Eŕuki? ¡Ja, ja, ja, ja! ....
INES. Goazen biyok. *(Orain besarkatuko dira eta oŕela egongo dira oyala jetxi arte.)*
KRRMEN. ¿Nora? ¿Dantzara?
INES. Orain Jaunaren laztanera, gero..... zerura.....
KARMEN. Ni orain..... mundura..... mundura....
INES. Ni Jesusena Karmen, ni Jesusena.
KARMEN. Aguŕ ba «betiko».
INES. ¡Ai Karmen! *(negaŕez gora begira)* betiko ez, betiko ez. Ez aztu len esan ziazun itza.
KARMEN. ¿Zer?
INES. Elkaŕekin bizi ta elkaŕekin iĩ.
KARMEN. Alaxe da *(negaŕez gora begira.)* ¡Elkaŕekin bizi!..... ez..... ez..... ori ez..... ¡Elkaŕekin iĩ!..... bai..... bai..... Elkaŕekin iĩ.....

Oyala aguro

IRUGARẆEN EKIN-ALDIA

LENDABIZIKO SAYOA

Ama Frantziska bakarik.

ANTZOKIA.—*Egon-gelatxo bat. - Aurena iñor gabe.*

AMA FRAN. *(Oblata erligiosen erara jantzia.—Gelan sartuta, mai gañean dagon idazki bat irakurtzen.—Bukatuta mai gañean utziaz.)*
Beste bat... ¡Au lana! Ardi galduak ugaritzen dijoaz..... ¡Zer da mundu ori!....
¡Ai biotza bezin zabal banu etxea! Samin zait loituta datozten arditxo oyek ate ondotik bialtzea.....
Eta ¿non jaŕiko ditut? Azkeneko oya atzo bete zan. Urtero etxea zabaltzen goaz, eta beti toki biĺa..... ¡O, o!.... Murdu galdu oŕen zipriztin ustelak, ainbeste lore edeŕ ta garbi kutsutu digu.....
Betor bada lora txiur ori... benturaz aingeru biurtuko degu..... Lastai utsa asko zait neri..... eta ala-bait osatuko gera.

2' GARẆEN SAYOA

Ama Frantziska ta Axentxi.

AXENTXI. *(Atetik kanpora ate zayari)* Eskeŕikasko..... *(Auŕeratuaz)* Ez dakit kalte

izango zayon Ama Frantziska, atezaiak sartzeko agindu dit.....

AMA FRAN. Ongi da..... Ez daukat une ontan iñorentzat ezkuturik.....

AXENTXI. ¿Eginkizun asko benturaz?

AMA FRAN. Eginkizunak buruz gain..... ez daukagu denbora alpeŕik galtzeko..... Osatu eziñik beti.

AXENTXI. ¿Gazte askotxo datoŕ?

AMA FRAN. Etxea bete... Oi bat ustu baño len, zai ditut bi edo iru.

AXENTXI. ¿Ez al da ori benturaz, aukera bear bezela egiten ez dalako? Barkatu bizait, baño..... Uste det kalean badabiltzala emen dauzkatenak baño eŕukaŕigoak, eta oek jaten diotela ayek jan bear luteken ogia.

AMA FRAN. Andretxoa, ez dakit nor zeran, baño jakin bear dezu, emen itxu itxuan ez dala iñor sartzen. Ara ikusi nai badezu, Gobernadore jaunak oraintxen bialtzen diran idazkia... Etxetik iges eginta, bere amaren aginduz, or arkitu duten gazte baten alde. Ori datoŕen bezela datoz besteak, eta ori artuko degun eran artzen ditugu guztiak.

AXENTXI. *(Idazkia irakuŕiaz).* Ordu oneŝn natoŕ... Gazte auxe dala bide igo naiz onera... Banekien bere amaren asmoa..... Gai onezaz zerbait esan nai nioke.

AMA FRAN. Esan zaidazu bada.....

AXENTXI. ¿Beoŕen baimenaz, exeriko naiz?

AMA FRAN. Exeri eskero altxa egin bear da; zutik dagona edozertarako dago. Alpeŕak deitzen

digute guri, baño geyenean exertzeko asti gabe bizi gera. *(Atean deituko dute, eta irikitzea dijoala).* Ara gu nola bizi geran. *(Axentxik emen ernai eta begi zofotza eduki bear du. Atea irikitzean alboko gelan gordeko da).*

3' GAŔEN SAYOA

Ama Frantziska, Simona ta Pilar.

PILAR. *(Saŕeran)* Gau on bat diola Jaunak, Ama Frantziska; gogoratuko da zein naizen.....

AMA FRAN. ¿Nola ez?.... Ez da au lenengo aldiya. *(Albotara begira).* ¿Nora joan zait andre ori?

SIMONA. Ez giñioke ordu ontan lan txaŕik egin nai, baño beaŕ-beaŕak gakaiski onera.

AMA FRAN. Bear danian on egiteko ordu guztiak berdiñak dira guretzat.

SIMONA. Zori gaiztoko alaba bat dala bide natorkio ba..... Gaiztoz etxetik iges egin zuen. Emen bestetan ez du onezkero iñork lotuko, ta emen bearko du, artu nai badiate.....

AMA FRAN. Bayetz pozik esango nizuke, baño ez dakit esan nezakedan; oi bat utsik etxe guztian ez daukat, eta auŕetik beste baten eskea, Gobernadoreak bialduta or dago, bera ez bada beintzat.

PILAR. Andik gatoz, eta baditeke *(idazkia irakuŕiaz)* Ber-bera, Karmen.

AMA FRAN. Bañia..... ez nago lasa..... zaudete pixka bat..... exeri zaitezte; berealaxe natoŕ..... *(joango da).*

4' GAŔEN SAYOA

Simona ta Pilar.

SIMONA. (*Eskuak burura eramanaz*). ¡Ai, au burubidea! ¡Azkenean nere alabak, amilka amilka bere burua ondatu ondoren, Oblata tara jo bear! ¡Ara or nere bizitzako lotsa! ¡Ai bi bider gauzak egin bear balira!

PILAR. Eskeŕak ortan degunean, Karmen'ek aingeru zaindaria oraindik berekin du, etzan bestela gaur gure eskuetan; ondo lotua zeukan ori Axentxik.

SIMONA. ¡O zori gaiztoko andre sorgin galgaŕia! ¡Ai beñere ezagutu ez banu! ¡Oŕek galdu dit alaba! ¡Nundik nora ibiĩi ote dit!.....

PILAR. Ori ere eroriko da, justiziak erne dabilzki pausoak, ez da oso uŕuti izango.

SIMONA. Aŕen bada. Ezin egon naiz. Laixter alaba emen degu..... ¡Ai nere alaba! ¡Bi urte ontan zure amak zer kalbario daraman ez dakizu!..... Ta azkenian gaiztoa izan dalako justiziaren eskuetan lotuta ikusi bear..... Bañan, Pilar, auxe eznuke ikusi nai..... Eriotza da ori neretzat.....

PILAR. Ongina nola dan Ama Frantziskak esango digu; ez da lenengoa, eta berak jakingo du.

5'GAŕEN SAYOA

Ama Frantziska, Simona ta Pilar

AMA FRAN. *(Saŕeran)*. ¿Ikusi al dezute iñor? ¿Ez da onera iñortxo agertu?

PILAR. Gu emen sartu ezkeroztik ez da iñor izan emen.

AMA FRAN. Zalantxa txaŕ batean nago.

SIMONA. ¿Zer dala ta?

AMA FRAN. Zuek sartu auŕetik emen nerekin zegon andretxo bat, ez onera ta ara joan zait; ez dakit bera nor dan eta nundik atera dan.

PILAR. ¡Ara beŕiz!

SIMONA. Axentxi da ori.

PILAR. ¡Axentxi! ¿noren biĺa?

SIMONA. Axentxi dala ori. Andre ori sorgiña da, eta zazpi demonio beregan ditu oŕek.

AMA FRAN. ¿Eta nor da bera?

SIMONA. Alaba ondatu diran, emakume galgaŕi bat. !Ai, beñere ezagutu ez banu!

PILAR. ¡Ai beiñ ondo ezagatu bazenu!

SIMONA. Ala da; neroni naiz gaitz onen sustraya. Ordu txaŕean jaŕí zitzaidan buruan, nere alaba moja joango zala..... ¡Ai, joan ba-litz!..... Bañan.....Andre oŕen eŕañua ikusten det emen..... Oraindik ementxe, ementxe bertan ere geŕa eman bear digu oŕek....

PILAR. Bañan joango zan..... ¿ala ez?

AMA FRAN. Bayetz uste du atezaiak, zuek ikusi ta iges egin ote duan.

SIMONA. Amen ba, betiko.

6'GAŔEN SAYOA

Lengoak eta Atezaia

ATEZAIA. *(Atetīk)*. Emen dute bada gazte ori.
SIMONA. ¡Ai, ni gordetzera noa!
AMA FRNA. Ez gorde.....¿nola datoŕ? ¿gogor al dago?
ATEZAIA. Autoan poliziak ekaŕi du. Atarian zai zeuden bere lagun len izandako batzuek eta batera sartu dira..... Bigun xamar dirudi...
AMA FRAN. Orduan ez daukazu zergatik gorderik..... Exeri or biok eta datozela onera.
ATEZAIA. ¿Guztiak?
AMA FRAN. Banoa. *(Irtengo da.)*
SIMONA. *(Arpegia eskuakin estali ta.)* ¡Auek lanak! !Jesus, auek lanak!
PILAR. Ez bildurtu Simona, zure alaba, ardi galdua bezela orain arkitu da ta.....

7'GAŔEN SAYOA

Ama Fran., Simona, Pilar, Karmen, Teresa ta Nati

(Lenengo agertu bear dute Teresa ta Nati eta ondoren Ama Frantziaskak bezarkatuaz ekaŕiko du bere albora Karmen, esanaz.....)

AMA FRAN. Tira Karmen, emen ere biotz bera ta ongiīeak badira, eta etzera izutu bear.....
(Karmen agertuko da jantzi nabarmenta erdi desegiña eramanaz munduaren kutsua dakaŕena bezela, ondatua, īle nastua,

arpegia zĩkin itxuran, burua makuf, apal ta lo-tsa aundia balu bezela.
Exeri bada ementxe Karmen, eta laixter beste etxeko alaben antzera jantziko zaitugu.

PILAR. Biaŕa dauka gaxoak.

AMA FRAN. Oŕela etortzen dira geyenak eta nabarmenago ere bai.

TERESA. Munduan ibiltzen diran eran.

AMA FRAN. Burutik oñetara jantzi bear izaten ditugu asko.

PILAR. Munduak bastartzen dituan orbañak, ¿zer ekaŕiko dute bada onera?

TERESA. Jantziak uŕatuak eta anima loituax.

AMA FRAN. Orixe..... *(Karmen'ek burua oso makurtuta luŕera begira egon bear du.)* ¿Tira Karmen, ara or zure ama, begira zaiozu, aguŕ ez al du merezi?

KARMEN. *(Mugitu gabe.)* Nik ez det amik; oŕegatik nago gaur emen.

SIMONA. *(Negaŕez.)* ¡Ai, Karmen! Nere baŕena nola dagoen bazekizu etzenuke eri esango... ¡Ai zori-txaŕeko ordua!

KARMEN. (*Burua altxata, asaŕe*). Beori ama izan balitz, ni alaba izango nitzan. Auŕena bedoŕek amatasuna aztu zuen, eta gero nik alabatasuna, eta orain ez dago emen ez amik eta ez alabarik.

AMA FRAN. *(Lastanduaz)*. Karmen, ez samindu biotzik, eta lenak aztu.

SIMONA. *(Negaŕez)*. Ama izan ez banitz, eta amaren biotza miñ-miña emen eduki ez banu, ez nintzan zure biĺa ibiĺiko.

KARMEN. Berandu dabil, ordu txarreko zotiñak dira oiek.

PILAR. ¿Ez da bada au ordu ona?

KARMEN. Garayan zuk bezela begiratu balit, etzuen orain bila ibili bearrik...

AMA FRAN. Nekez bada ere arkitu zaitu.

KARMEN. ¡Aiii!... ¡Lorea galdu zuen..... ota orbela arkitu du!

SIMONA. *(Negarrez eskuakin burua estaliaz)*. ¡Ai, Karmen, ez nazazula il!

ATEZAIA. (*Zalapartaz)*. ¡Ama, Ama! Andre arotz ori or ikusi det.....

AMA FRAN. *(Altxata)*. ¿Non da? *(Irtengo da)*.

PILAR. ¡Axentxi! Inpernuak ere txarregiz bota bear zaitu. *(Irtengo da)*.

TERESA. Guazen gu ere.

NATI. Guazen bada. (*Irtengo dira*.)

8' GARREN SAYOA

Ama alabak.

(Apur batean biyak geldi ta ixilik).

SIMONA. *(Altxa ta alabaren oñetan belauniko, bi besoak lepora bota ta negarrez)*. ¡Karmen, Karmen! Zuretzat ama txarra izan banaiz ondo damutua naukazu... ¿Zure itz bigun bat ez al det merezi?

KARMEN. Berandu da... berandu da.

SIMONA. ¡Karmen! ¿Zure ama zure oñetan negarrez, belauniko ikusi ta ere ez?

KARMEN. Negarra egingo nuen denbora bazan..... gaur ez.

SIMONA. ¿Zergatik ez?

KARMEN. Negaŕa biotzetik atera oi omen da... eta Karmen'ek biotza galdu zuen.....

SIMONA. ¿Barkatzeko aña biotz ez dezuba? ¿Zure amari barkatzeko aña ere ez?

KARMEN. *(Gora begira).* ¡Aiii!.. ¡Ama!.. *(Sillan seŕaldo eroriko da).*

SIMONA. ¿Zer da au? *(Irtengo da).*

9' GAŔEN SAYOA

Karmen bakaŕik, gero Axentxi.

(Piska bot egonta altxako da).

KARMEN. Bakaŕik nago. ¿Zer egin nezake? ¿Iges? ¿Nora? ¿Nondik?.... ¡Ai ene, ai ene! Nere buruak nazkatzen nau...ta emen(*biotzean*) utsun ikaragaŕi bat daukat; ezer gabe nago ta ezer ez naiz. Lañopean dago aspaldian zerua; biotza nuen tokian sakon aundi, leize ilun bat daukat; munduak baztertu nau... ¿zer naiz?... izanaren eŕañu bat... aizeak daraman osto igaŕa... ¡¡Inpernurako su gaia!!... ¡Ene! Izua datorkit...

AXENTXI. *(Albotik).* Ez ikaratu. *(Laztanduaz).* Etzaude bakaŕik, nere kutun ori, ez ta ere zuk uste dezun bezin baztartua, nik aska-tuko zaitut... Ate ortatik dago baratza, eta baratzatik iges bidea... *(tiraka).* Goazen.

KARMEN. ¿Nora ordea? ¿Zertara? Nekatua nago... asea nago... neretzat ez dago luŕean zorion beterik .. Eriotza nai det...

AXENTXI. ¡Karmen! ¿Emezortzi urte oraindik ez

dituzu, eta eriotza? ¿Txoratu zera ala?.. ¿Konbentu ilun onetan lotuta, usteltzea nai dezu? (*tiraka*). Goazen, goazen Karmen, goazen aguro emen ditugu ta...

KARMEN. ¡Ai!.... ¡Ta nere ama!

AXENTXI. Ni beste amik ez dezu zuk. (*tiraka*). Goazen.....

KARMEN. ¡Ai, ilko banitz!.... Banoa... (*Joango dira albotik, eta ondotik agertuko dira Simona ta Ama Frantziska*).

10' GAŔEN SAYOA

Simona ta Ama Frantziska, gero Pilar ta Karmen.

SIMONA. (*Saŕeran*). ¡Ene nere Jaungoikoa! Iges egin digu.

AMA FRAN. ¿Iges? Baño ¿nora? ta ¿nondik?

SIMONA. Axentxi dabil emen, eta oŕek zirkuen bat arkitu du. Karmen berez ez da emendik atera. ¡Au burubidea!

AMA FRAN. Ez estutu nere andrea. Ez dira uŕuti, ta eroriko dira...

SIMONA. ¡Ai! andre ori demonioz betea dabil... eta askenean bengantzaren bat egin bear dit nere alabarekin.

AMA FRAN. ¿Zer egin dezake?

SIMONA. Zokoen batean il.

AMA FRAN. ¡Jesus! ¿Oŕenbeste?

SIMONA. ¡Ai! Ni ezin egon naiz.

AMA FRAN. Telefonora noa (*ateraño joango da, atean arkituko ditu Karmen eta Pilar.*) ¡Ene

nere Karmen! Ez diguzu estuasun txaŕa eman.

PILAR. Karmen'ek oraindik badu aingeru bat bere zaindari. Baratzan auŕera an zijoan Axentxi, bildots otsana bezela, berau atzetik duela, ¡Karmen! deadar egin diot. Au gelditu da, ura beŕiz deabruak daraman anima bezela, orma gañetatik joan da.

SIMONA. Bijoa betiko, aŕen, aŕen, aŕen.

AMA FRAN. ¡Ai, nere Karmen! *(Laztanduko du)* Andre gaizto oŕek galdu zaitu zu; zure amak bere eskuetan jaŕi ziñuzan eta ara or...

SIMONA. ¡Ordu txaŕeko nere burubidea! Ondo damutua nago. Beste askorentzat ikasbide izango balitz.

PILAR. Barkatu egin bear elkaŕi.

AMA FRAN. Bai; orixe da Jainkoak emen lelengo eskatzen digun gauza.

KARMEN. *(Amaren oñetan belauniko besoak lepora betako dizka)*. Ama nik barkatzen diot, eta barkatu bezait.

SIMONA. *(Begiyak zerurotz jaŕita)*. ¡Ai, nere alaba gaxoa! Zeruak entzan daizula, eta ixuri dezala biongana barkazioa, eta urte batzuetan onak izateko osasuna.

11'GAŔEN SAYOA

Lengoak, Teresa eta Nati

TERESA. *(Zalapartan biak sartuko dira)*. ¡Justizia, justizia!

PILAR. ¿Zer da?

TERESA. Gero edo laixter, Jainkoak guztiak neurtzen ditu, eta bere zuzentasunari iñork ez dio iges egingo.

NATI. Axentxi erori dala.

SIMONA. ¡Ai, lenago erori bilitz!

AMA FRAN. ¿Nola da ori? ¿Zen gertatu da?

TERESA. Pilar baratzetik bezela gu biok kanpotik joan gera. Karmen Pilar'ek gelditu duenean, Axentxik orma gañetik iges egin du, baño gu atzetik giñan.... Bera laxterka eta gu ere bai. «Gran-bia» kalean umetxo batekin katiatu ta luze-luze erori da... eta ala bear, tranvia gañean.....

AMA FRAN. ¡Jesus!.....

NATI. Belaunaz gañetik bi oñak ebaki dizkio.

KARMEN. ¡Ene!.....

SIMONA. Eŕukaŕia da azkenian gaxoa.

AMA FRAN. ¿Eta bizi ote da?

TERESA. Korde gabe jaso dute, ez dakigu.

PILAR. Askoren oñak oker-bidetik erabiĩi dituen galzaĩe..... Jainkoak azkenian ara nola berari bereak kendu dizkion.

NATI. ¡Justiziaren neuŕia!

AMA FRAN. Eŕegutu dezagun, Jainkoak beregana biurtzeko aña bizitza eman dezayon.

PILAR. ¡Ai, Karmen, zu oraindik Jainkoak maite zaitu, etsai bat kenda dizu ta biziko zera.

12'GAŔEN SAYOA

Lengoak eta Atezaia

AMA FRAN. Etxeko alaben soña jantziko diogu oraintxe.

ATEZAIA. Ara emen soiñ beŕia....

TERESA. Aspaldian ez beleza estaliko zaitu

AMA FRAN. ¡A! Modestia da emen lenengo agindua. *(Soñekoa jaŕiaz)*. Tira Karmen, guztien ganetik jaŕiko dizugu orain, amak ikusi zaitzan; gero bear bezela antolatuko zaitugu..... oratx.....

PILAR. Ederki dauka..... Emen erdira ekaŕi, guztiok ikusi bear degu. Eso egoki dago.

AMA FRAN. Ekaŕi orain buru-sarea..... *(Jaŕiko dio.)* Tira bada..... orexale. *(Muxu emango dio.)* ¡Bapo, bapo! ¿Zer derizkiotzu Simona?

SIMONA. Ondo dago. Pozik egon bear nuke..... eta zorionekoa izango nintzake ordu onetan, ar gaizto batek biotza zulatuko ez balit.

PILAR. ¿Zerk samintzen zaitu bada Simona?

SIMONA. ¡Ai ene! «inozentziaz» jantzita ikusi bear nuen alaba «penitentziazko» jantziakin ikusi bear.....

PILAR. Garaiz egindako *(penitentziak)* oker aundiak ordaintzen ditu Simona.

SIMONA. Ala bearko.

TERESA. ¿Etziko al dezu emen, Karmen?

PILAR. ¿Etziko ez du bada?

KARMEN. Zuek etoriko zerate noizik bein.

AMA FRAN. Etoriko dira..... etxean ere badituzu lagunonak..... zuk gutxiena uste dezuna bat beintzat.....datoŕela.....

SIMONA. Gaiztakerian lagundu dizunen bat noski.

AMA FRAN. Gaiztakeria zer dan ere ez daki. Etxean degun aingerurik edeŕena da.

KARMEN. ¡Zorionekoa bera!

AMA FRAN. Ara emen zure laguna izan dana ta zure laguna izango dana.

13'GAŔEN SAYOA

Lengoak ta Sor Ines

SOR INES. ¿Zein da nere laguna?
PILAR. *(Afituta.)* Ene bada. ¡Ines!
TERESA. ¡Ines!
NATI. !Ines!
KARMEN. *(Izututa.)* ¡Ines! *(Eskuakin arpegia estali-ta, baztaŕera iges egingo du.)*
SOR INES. Ez izutu, Karmen..... Atoz nere besotara. *(Uŕeartuko zayo.)* Ni lengoa naiz.....
KARMEN. *(Negaŕez deadar egingo du.)* !Ai ni lengoa banitz! *(Gelaren erdiyan biyak laztanduko dira, Sor Ines'ek burua zerurontz jaŕiko du, eta Karmen'ek Ines'enr bulagañean eskutatuta, bakatu arte ez dira banatuko.)*
SIMONA. *(Negaŕez belauniko.)* ¡Ai nere biotza! ¡Lengoa baziña, lengoa baziña!.... *(deadar egingo du.)* ¡Nik ditut kulpak!
KARMEN. *(Mugitu gabe.)* ¡Nik ere bai!
SOR INES. Emen, Karmen, emen garbituko zera.
SIMONA. *(Belauniko besoak eta begiyak zerura jasota.)* ¡Ai nere Jainkoa! Lore garbi bat eskatu zeñidan eta ukatu egin nizun. Zure biotz samiñak ukatu nai ez badit, irain eŕuz betea eskeñi nai dizut..... Aŕen altxa zaidazu.....betiko zuretzat.
AMA FRAN. Ondo damututako biotzak askotan lore beŕitzen dira.
SOR INES. Beŕituko da, Karmen..... elkartu gaitu Jau-

nak..... Karmen, elkaŕekin bizi eta elkaŕekin iĩ.....

KARMEN. *(Ot.xan-ot.xan)* Bai, elkaŕekin bizi eta elŕekin iĩ.....

GUZTIAK. *(Batera.)* Elkeŕekin iĩ eta elkaŕekin bizi, zeru goyan beti.

Oyala bera

Aprobación

Nithil Obstat
Victoriæ, 23 Martii 1931
Emmanuel de Lecuona.

Victoriæ 24 Martii 1931
Imprimatur
† Matthæus - Episcopus
Victoriensis